



**2007ko abuztuaren 31an izango den plaza esleipenaren egutegia eta araudia**

- Abuztuaren 22an arratsaldeko 14:00etatik aurrera, haurreskolak.net web orrian (albisteen atalean), eskainiko diren lanpostu berriak jarriko dira ikusgai. Gainera, esleipenean parte hartu nahi duten jarduneko hezitzaileentzat lanpostuari uko egiteko eredia eskuragarri jarriko da.
- Abuztuaren 22tik 24ra, lanpostuari uko egin nahi dioten jarduneko hezitzaileek eredia sinatu eta Partzuergora bidali behar dute faxez (943821755). Partzuergoaren egoitzan ere aurkeztu ahal izango da uko-agiria abuztuaren 23 eta 24an goizeko 9:00etatik 14:00etara. Epe horren barruan lanpostuari uko egiten ez badiote, ezin izango dute esleipenean parte hartu.
- Abuztuaren 30ean behin betiko zerrendak aterako dira (esleipenean aterako diren lanpostu guztien zerrenda, uko egitearen ondorioz libre geratu direnak barne).
- Esleipena abuztuaren 31an egingo da, goizeko 10:00etan suprimituen eta beren plazari uko egin diotenen artean.

**Calendario y normativa para la adjudicación de plazas que tendrá lugar el 31 de agosto de 2007**

- El 22 de agosto a partir de las 14:00 de la tarde se colgará en la página web haurreskolak.net (sección noticias) la relación de plazas nuevas que se ofertarán. Asimismo se colgará un modelo de renuncia a la plaza de los educadores/as en activo que quieran tomar parte en la adjudicación.
- Del 22 al 24 de agosto los educadores/as en activo podrán renunciar a su plaza bajándose el modelo de renuncia y enviándolo firmado al fax del Consorcio (943821755). También podrá presentarse directamente en la sede del Consorcio los días 23 y 24 en horario de 9:00 a 14:00 horas. Los educadores/as que no renuncien en plazo a su plaza no podrán tomar parte en dicha adjudicación.
- El 30 de agosto saldrán las listas definitivas (total de plazas que saldrán a adjudicación incluyendo las plazas a las que se ha renunciado).
- El 31 de agosto a las 10:00 de la mañana se realizará la adjudicación de las plazas vacantes entre el personal en activo que haya renunciado a su plaza o haya sido suprimido.



- Deialdi bat egitea erabaki da, abuztuaren 31n, 11:30ean, plaza hutsen bat betetzen ez duten eta hezitzaile-zerrenda integratuan (barematua) edo barematu gabeko zerrendan dauden izangaiak biltzeko. Zerrenda integratuko hezitzaileek lehentasuna izango dute esleipenean.
- El 31 de agosto a las 11:30 de la mañana se acuerda convocar a los candidatos/as que no ocupen plaza vacante y se encuentren en situación de disponibles en la lista integrada (baremada) de educadores/as, que tendrá prioridad en la adjudicación, o en la lista no baremada de educadores/as.

Abuztuaren 31ko esleipenean 2007ko irailean sortutako lanpostuak eta 2007ko urrian eta azaroan zehar sortuko direnak eskainiko dira.

En la adjudicación de 31 de agosto se ofertarán tanto las plazas creadas en septiembre de 2007 como las que se creen a lo largo de los meses de octubre y noviembre de 2007.

2007ko irailaren 1ean sortu ez diren lanpostuen kasuan, plaza bat lortzeko aukera duten hezitzaileek aldi baterako lanpostua izango dute inguruko ikastetxeetan dagokien plaza sortu arte, laguntza-irakasle gisa jarduteko eta ikastetxe horretan edo inguruko beste ikastetxe batzuetan sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko. Partzuergoak ordaindu egingo ditu langileak egokitu zaion ikastetxetik ordezkapenak betetzeko joan behar duen ikastetxeetarainoko joan-etorriak.

En el caso de las plazas que se ofrecen en la adjudicación no creadas el 1 de septiembre de 2007, los educadores/as que opten a dichas plazas, serán recolocados provisionalmente y hasta que se cree su plaza en otros centros de la zona como personal de apoyo y para cubrir las posibles sustituciones que pudieran surgir en dicho centro y en otros centros de la zona. El Consorcio pagará los desplazamientos que se realicen desde el centro en el cual se ha recolocado dicho personal al resto de los centros a los que acudiere a realizar dichas sustituciones.